

**TWITCH**

---

## TWITCH

---

Txosten honetan aurkezten dira 2021-2022 ikasturtean egindako bosgarren inkestan jasotako emaitzak. Twitch plataformari buruzko gaiak landu dira nagusiki inkesta honetan.

### **1. OHAR METODOLOGIKOAK**

Azterketa-lan hau egin den unean, Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) eta Nafarroako Unibertsitate Publikoko (UPNA) mila ikasletik gorak osatzen dute Ikusiker Panela. Unibertsitari hauek modu iraunkor eta maiztasun handiz erantzuten dituzte luzatzen zaizkien online galdera-sortak, beti ere ikus-entzunezkoen kontsumoei eta IKTen-Informazio eta Komunikazio Teknologien erabilerei buruzkoak. Panela 2018-2019 ikasturtean sortu zen Applika izeneko ikerketa-proiektuaren barruan (US17/40). UPV/EHUko NOR ikerketa-taldeak eta EITBk abiatutako proiektuan unibertsitateko ikasketa desberdinetako eta hiru kanpusetako ikasleak biltzen ditu panelak. Galdetegiak encuestafacil.com plataformaren bitartez kudeatzen dira eta hortik jasotako datu baseak Aztiker Soziologia Ikerguneak ustiatzen ditu.


Txosten honetan aurkituko dituzu 2022ko otsailaren 14tik 20ra bitartean martxan izandako inkestaren emaitzak. Hilabete honetan Twitch-en erabilera eta sormenaren inguruko datuak aurkezten dira. 1.242 erantzun hartu dira kontuan, baliozko panelista guztienak (inkestaren amaierara iritsitakoak eta errepikatu gabeak).



## 2. TWITCH-EN ERABILERA

Inkesta honetan Twitch plataformari buruzko galderak egin dira. Erantzuleen artean gehiago dira Twitch-en kontu bat ez dutenak badaukatenak baino (% 61,7 dira lehenengoak eta % 38,3 bigarrenak).


### 1. Irudia – Baduzu Twitch-eko konturik?



Iturria: Ikusiker Applika +

Era berean, Twitch zenbatero erabiltzen duten galdetu zaie (kontu bat ez duenak ere erabil baitezake). Antzeko emaitza ematen duen arren, Twitch inoiz erabiltzen ez dutenak % 57,3 dira, konturik ez dutenak baino zertxobait gutxiago (konturik ez dutenen arteko % 12,7k noizbait erabili izan du). Twitch noizbait erabiltzen duen % 42,7 horretatik ia erdiak oso gutxitan erabiltzen duela adierazi du (% 18,2k), % 3,1ek dio hilean behin erabiltzen duela, eta inkestatuen bostena inguru da asteroko maiztasun batekin erabiltzen duena plataforma (horien artean talderik esanguratsuena astean 2-5 alditan sartzen direnek osatzen dute).


### 2. Irudia – Zenbatero erabiltzen duzu Twitch?



Iturria: Ikusiker Applika +

Plataforma noizbait erabili izan dutenek bakarrik jarraitu dute txostenean hemendik aurrera aurkezten diren datuak erantzuten, 530 kasuk 1.242tik. Asteko zein unetan erabiltzen duten gehiago plataforma hau galdetuta, % 35,3k antzera erabiltzen duela adierazten du astegun eta astebukaera artean; hala ere, talde handiagoa sortu da asteburuan gehiago erabiltzen dutenen artean (% 41,0) astegunetan gehiago erabiltzen dutenen artean baino (% 23,7).


3. Irudia – Noiz erabiltzen duzu gehiago Twitch, astegunetan ala asteburuetan (larunbata, igandea ala jaiegunetan)?



Iturria: Ikusiker Applika +

Idealki eskainiko lioketen denborari buruz galdetuta, hiru laurdenak baino gehiagok diote ez luketela ez gehiago eta ezta gutxiago ere erabiliko (% 76,4k). Beste laurdenaren artean, gehienek denbora apur bat gehiagoz erabiliko lukete (%14,1ek).


4. Irudia –Aukera izango bazenu, denbora gehiago ala gutxiago pasako zenuke Twitch-en?



Iturria: Ikusiker Applika +

Twitch-era sartzeko gailurik ohikoena telefono mugikorra da (% 44,3ren kasuan), eta segidan ordenagailu eramangarria dator (% 34,0). Hurrengo bi aukerak dezentez urrutiago kokatzen dira (mahaiko ordenagailua % 10,7ren kasuan eta tableta %8,4rean), eta ia inork ez ditu aipatzen telebista pantaila (% 1,9) edo bideo-kontsola (% 0,4k).


5. Irudia – Zein gailu erabiltzen duzu gehien Twitch-era sartzeko? Aukera bakarra



Iturria: Ikusiker Applika +

Twitch-en ikusten diren edukien artean, ia guztiek gaztelania dute hizkuntza nagusia, hain justu, % 90,6k. Gelditzen den hamarren eskasean, ia kasu guztietan ingelesa aipatzen da hizkuntza nagusi moduan ( % 6,7n). Hirugarren lekuan, euskara eta frantsesa ez den beste hizkuntzaren bat aipatzen dute % 1,9k, eta euskara eta frantsesa bakoitza % 0,4k hautatu ditu.

6. Irudia – Twitch-en ikusten dituzun edukietan zein da hizkuntza nagusia?



Iturria: Ikusiker Applika +

Twitch erabiltzen duten panelisten artean sortzailerik arrakastatsuena Ibai da alde handiz, 250 panelista inguruk aipatuta. Aipamen gutxiagorekin baina besteengandik bereizten dira elxokas, auronplay eta illojuan bezalako sortzaileak. 20 aipatuenen artean emakume bakararra agertzen da: anablanchu.


7. Irudia – Twitch-en emanaldiak egiten dituzten pertsona edo sortzaileen artean, zeintzuk dira gustukoena dituzunak?



Iturria: Ikusiker Applika +

Plataforma honetan bi kategoria nabarmentzen dira gogokoen gisa: “bideo-jokoak” (%43,4k hautatuta) eta “Just chatting” (% 39,7k esana). Segidan datoz “talk showak eta podcastak (% 5,6k aukeratuta), “kirolak” (% 3,5ek) eta “special events” (% 2,5ek). Beste kategoria guztien aipamenak % 1 baino txikiagoak dira.


8. Irudia – Zein da Twitch-en gustukoena duzun gaia ala kategoria?



Iturria: Ikusiker Applika +

Twitch-en ekintza batzuk egiteko daukaten maiztasunaz ere galdetu da. Galdetu diren jardueretatik hiru ez ditu ia inoiz egiten inkestaturen gehiengoak (% 71,2 ez da beste kanaletan harpidetzen inoiz ala oso gutxitan egiten du; % 80,2k ez du ia inoiz bideoetan iruzkin edo aipamenik idazten, eta ezta bestelako jarduerarik egiten ere). Maizen egiten den jarduera beste erabiltzaileek igotako edukiak ikustea izaten da, erdiek baino gehiagok gutxienez astean behin egiten baitu (eta % 27,0k ia egunero).

### 9. Irudia – Twitch-en hainbat ekintza egiteko maiztasuna




Gazteari buruzko iritziak

Iturria: Ikusiker Applika +

Twitch-i batez beste ematen zaion puntuazioa 7,1ekoa da, modu honetan banatuta:

### 10. Irudia – Twitch-en balorazio orokorra.




Iturria: Ikusiker Applika +



### 3. TWITCH-EKO SORTZAILEAK

Amaitzeko, Twitch-en noizbait zuzenekorik egin duen jendeari galdera batzuk egin zaizkio bere sortzaile izaerari lotuta. Twitch erabiltzen dutenen artean % 10,9k egin izan du zuzenekoren bat noizbait.


#### 11. Irudia – Egin al duzu inoiz zuzenekorik Twitch-en?



Iturria: Ikusiker Applika +

Gehien-gehienek (% 77,6k) bideojokoaren kategorian sartzen den zerbait sortu dute. Beste kasuak hiru kategoriatan kokatzen dira (bakoitza % 5aren bueltan): “just chatting”, “kirolak” eta “talk showak eta podcastak”.


#### 12. Irudia – Twitch-erako sortzen dituzun bideo eta eduki horien artean, zein da gehien sortzen duzun eduki mota?



Iturria: Ikusiker Applika +

Amaitzeko, hizkuntzari dagokionez, ia denen kasuan gaztelania gailentzen da: % 77,6k beti gaztelaniaz sortzen ditu edukiak eta % 12,1ek gaztelaniaz gehiago sortzen du euskaraz baino (guztira % 89,7). Horiez gain, % 5,2k euskara eta gaztelania ez den beste hizkuntza batean sortzen du gehienbat. Euskaraz sortzen dutenen artean, kopuru handiagoa da beti euskaraz sortzen duena (% 3,4) euskaraz eta gaztelaniaz proportzio berean sortzen duena baino (% 1,7).

13. Irudia –Hizkuntza aldetik, zenbateko pisua daukate euskarak eta gaztelaniak Twitch-erako sortzen dituzun edukietan?



Iturria: Ikusiker Applika +